ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko abenduaren 30a, astelehena • 147 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## GIZARTE POLITIKEN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 28/2024 Foru Dekretua abenduaren 23koa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako zerbitzuen prezio publikoak onartzen dituen irailaren 29ko Gobernu Kontseiluaren 31/2020 Foru Dekretuan araututako prezio publikoak eguneratzea**

2020ko urriaren 30ean argitaratu zen ALHAOn Diputatuen Kontseiluaren irailaren 29ko 31/2020 Foru Dekretua, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari bere zentro eta zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituena. Dekretu horren zati bat aldatu zuten Gobernu Kontseiluaren ekainaren 29ko 29/2021 Foru Dekretuak, Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 4ko 42/2022 Foru Dekretuak, eta abenduaren 26ko 53/2023 Foru Gobernu Kontseiluarenak.

Araudi berri bat izapidetu nahi da, Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako foru-eskumeneko zerbitzu publikoen tarifen ehuneko 4 eguneratzeko eta udal-eskumeneko zerbitzu publikoen tarifak islatzeko, Arabako Lurralde Historikoko udalek egindako eguneratzearen arabera.

GOFEk eskaintzen dituen zerbitzuen prezioak erreferentziako kostuaren eta, besteak beste, Gizarte Zerbitzuen Zorroa eta hura garatu eta aldatzen duten xedapenak ezartzen dituzten moduluen arabera finkatzen dira. Prezio horiek izoztu egin dira denbora luzean, eta bakarrik, noizean behin, igoera txikiak izan dituzte, eta ez datoz bat emandako zerbitzu publikoen benetako kostuarekin. Egoera horren ondorioz, denborak aurrera egin ahala, desoreka ekonomiko larria sortu da zerbitzu horien kostuari eta erabiltzaileek ordaindu beharreko prezioari dagokienez. 2024an, tarifak handitu egin ziren, prezio publiko horiek haien kostu errealetara egokitu ahal izateko, eta, orain, beste doikuntza bat egin behar da, GOFEk ematen dituen zerbitzu publikoen errealitate ekonomikora hobeto egokitzeko.

Arabako Foru Sektore Publikoko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauaren 25. artikuluko 1. idatz-zatiak ezartzen duenez, prezio publikoen zenbatekoa Foru Gobernu Kontseiluaren Foru Dekretu bidez ezarri edo aldatuko da, gai horretan eskumena duen Sailak eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak batera proposatuta, foru arau batek kontrakoa ezartzen ez badu behintzat.

31/2020 Foru Dekretuaren 28. artikuluak ezartzen du foru dekretu honetan ezarritako prezio publikoak foru dekretu bidez eguneratu beharko direla. Dekretu horrek, halaber, aplikatu beharreko hobariak zehaztuko ditu eta behar adinako ahalmen ekonomikoa mugatuko du.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 2.d) idatz-zatia. Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzea. Bertan ezartzen denez, ezarritako prozeduratik salbuetsita daude honako helburu hauek dituzten xedapen orokorreko proiektuak: akatsak zuzentzea, aurrekontu-izendapenak aldatzea, zergak aplikatzeko behar diren balioak, koefizienteak, ehunekoak edo beste elementu kuantitatibo batzuk aldian behin eguneratzea, edo prezioak, tarifak, kostuak edo balioak, koefizienteak, ehunekoak edo indarrean dauden xedapenetan aurreikusitako beste batzuk berrikustea.

2. artikuluak berak 3. paragrafoan jasotzen duenez, aurreko paragrafoan aipatutako proiektuei, c) letran jasotakoak izan ezik, txosten juridiko bat erantsiko zaie, aukera, motibazioa, prozeduratik salbuesten duen arrazoia eta edukiaren eta tramitazioaren azterketa labur bat justifikatzeko, gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoaren arabera egoki diren txosten eta tramiteen kalterik gabe.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Horri dagokionez, berariazko araudiak, Arabako Foru Sektore Publikoko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak, 25. artikuluan jasotzen duenez, prezio publikoen zenbatekoa aldatzearekin batera, proposatzen den zenbatekoa eta dagozkion kostuen finantza-estalduraren maila justifikatuko dituen txosten ekonomiko-finantzarioa aurkeztu behar da.

Segurtasun juridikoaren printzipioa babestearren eta foru dekretuaren erabilera erraztearren, osorik argitaratuko dira I. eranskina, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuen prezio publiko guztiak biltzen dituena, II. Eranskina, ahalmen ekonomikoaren mugaketa ezartzen duena, eta III. Eranskina, hobari aplikagarriak ezartzen dituena.

Era berean, adierazi behar da eranskin horietan udal-eskumeneko gizarte-zerbitzuen prezio publikoen tarifak jasotzen direla, eta horiek ezartzea Arabako Lurralde Historikoko udalei dagokiela. Eranskinek tarifa horiek udalerri horiek zehaztutako prezio publikoen zenbatekoekin baino ez dituzte islatzen.

Horiek horrela, Gizarte Politikako foru diputatuak eta Ogasuneko foru diputatuak proposaturik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluari txostena eman zaio eta Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran eztabaidatu ondoren,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako zerbitzuen prezio publikoak onartzen dituen irailaren 29ko Gobernu Kontseiluaren 31/2020 Foru Dekretuan araututako prezio publikoak eguneratzea.

Bigarrena. Aurreko eguneratzearen arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako zerbitzuen prezio publikoen erregulazioa onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 31/2020 Foru Dekretuaren I., II. eta III. eranskinak aldatzea. Eranskin horiek lege-testu honen eranskin gisa erantsi dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Foru dekretu honek indarra hartzen duenean, indarrik gabe geldituko dira bertan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Lehenengo azken xedapena

Foru dekretu honek ALHAOn argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta tarifen eguneratzeak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Azken xedapenetako bigarrena

Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abenduaren 23an

*Diputatu nagusia*
*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu foru diputatua*
*ITZIAR GONZALO DE ZUAZO*

*Finantza eta Aurrekontu zuzendaria*
*IÑAKI ARRIZABALAGA ORMAECHEA*

*Gizarte Politiken foru diputatua*
*GORKA URTARAN AGIRRE*

*Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*
*MIREN SARATXAGA DE ISLA*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

I. ERANSKINA

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAK EMATEN DITUEN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOEN ZENBATEKOAK

Eranskin honetan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari 2025. urtean emandako zerbitzuak ordaintzera behartuta dauden pertsonek ordaindu beharreko prezio publikoen zenbatekoa jasotzen da, eta, horren ondoren, beste batzuk onartzen ez diren bitartean.

a) ZERBITZU OROKORRAK

| | |
|---|---|
| 1. tarifa. Etxez etxeko laguntza zerbitzua. | 6,66 euro orduko. |
| 2. tarifa. Arreta soziosanitarioa jasotzeko egoitza unitatea | 40,71 euro hileko |

ADINEKOENTZAKO ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK

| | |
|---|---|
| 3. tarifa. Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak: Laguntza produktuak hornitzen dituen zerbitzua | 5,26 euro hileko. |

c) ADINEKOENTZAKO ZERBITZUAK

| | |
|---|---|
| 4. tarifa. Landa eremuko ostatu zerbitzua | 647,86 euro hileko. |
| 5. tarifa. Egoitza-zentroak: | |
| 5.1.Tarifa. Orokorra. | 1.238,38 euro hileko. |
| 5.2.Tarifa. Berezia<br><br>Tarifa hau aplikatuko da hileko per capita ahalmen ekonomikoa 2.000 eurotik gorakoa denean. | 1.552,69 euro hileko. |
| 6. tarifa. Eguneko- zerbitzua edo- zentroa egoitza-zentroetan: | 547,27 euro hileko. |
| 6.1. tarifa. Eguneko zentroa, garraioarekin | 6. tarifaren ehuneko 100 |
| 6.2. tarifa. Eguneko zentroa, garraiorik gabe | 6. tarifaren ehuneko 80 |

| | |
|---|---|
| 6.3. tarifa. Eguneko zentroa, asteburuetan, garraioarekin | 6. tarifaren ehuneko 40 |
| 6.4. tarifa. Eguneko zentroa, asteburuetan, garraiorik gabe | 6. tarifaren ehuneko 32 |
| 6.5 tarifa. Asteburuko eguneko zentroa (egun bakarra), garraioarekin | 6. tarifaren ehuneko 20 |
| 6.6 tarifa. Asteburuko eguneko zentroa (egun bakarra), garraio gabe | 6. tarifaren ehuneko 16 |
| 6.7 tarifa. Eguneko zerbitzua landa-eremuko egoitza-zentroan, garraioarekin | 6. tarifaren ehuneko 70 |
| 6.8 tarifa. Eguneko zerbitzua landa-eremuko egoitza-zentroan, garraio gabe | 6. tarifaren ehuneko 56 |
| Erabiltzaileak zerbitzua garraioarekin edo garraiorik gabe jasotzea hauta dezake; batera zein bestera, gutxienez hiru hilabetean eutsi behar zaio hautapenari. | |
| 7. tarifa. Eguneko laguntza landa eremuko ostatuan | 218,91 euro hileko |
| 8. tarifa. Eguneko arretarako landa-zentroak. | |
| 8.1. tarifa. Arreta pertsonala emateko zerbitzua | 130,18 euro hileko |
| Zerbitzu osagarriak: | |
| 8.2 tarifa. Janari zerbitzua | 88,72 euro hileko |
| 8.3. tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua | 8,20 euro bainu bakoitza |
| 8.4. tarifa. Bainu geriatrikoko zerbitzua | 5,09 euro bainu bakoitza |
| 8.1 eta 8.2 tarifetan aurreikusitako zerbitzuak asteko egun guztietan erabiltzen ez direnean, aplikatu beharreko prezioa proportzioan kalkulatuko da. | |
| Irizpide bera ezarriko zaie zentro horietako atseden zerbitzuei. | |
| 9. tarifa. Atseden zerbitzuak | |
| 9.1. tarifa. Atseden zerbitzua egoitza zentroetan | 40,71 euro hileko |

| | |
|---|---|
| 9.2 Tarifa.Atseden zerbitzua eguneko zentroan. | 26,48 euro hileko |
| 9.3 Tarifa.Atseden zerbitzua eguneko zerbitzuan egoitza-zentroan | 18,61 euro hileko |
| 10. tarifa. Atseden zerbitzua landa eremuko ostatuan | 21,29 euro hileko |
| 11. tarifa. Eguneko arretarako atseden zerbitzua landa eremuko ostatuan | 10,64 euro eguneko |
| 12. tarifa. Atseden zerbitzua eguneko arretarako landa zentroan (arreta pertsonalizatua) | 6,32 euro eguneko |
| 12.1.Tarifa. Zerbitzu osagarriak | 8.tarifaren arabera |

a) DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK

| | |
|---|---|
| 13. tarifa. Bizimodu independenteari laguntzeko zerbitzua | 24,48 euro hileko. |
| 14. tarifa. Egoitza-zentroak | 1.238,38 euro hileko |
| 14.1. tarifa. Egoitza | 14. tarifaren ehuneko 100 |
| 14.2. tarifa. Laguntzadun etxebizitza: Aste osoko arreta, gaueko zaintzarekin | 14. tarifaren ehuneko 90 |
| 14.3. tarifa. Laguntzadun etxebizitza: aste osoko arreta, gaueko zaintzarik gabe | 14. tarifaren ehuneko 70 |
| 14.4. tarifa. Laguntzadun etxebizitza asteko arreta, astelehenetik ostiraletara, eta gaueko zaintza | 14. tarifaren ehuneko 65 |
| 14.5. tarifa. Laguntzadun etxebizitza asteko arreta, astelehenetik ostiraletara, gaueko zaintzarik gabe | 14. tarifaren ehuneko 45 |
| 14.6 tarifa. Aldizkako laguntza duen etxebizitza | 14. tarifaren ehuneko35 |
| 15. tarifa. Adimen urritasuna eta garapen arazoak dituzten pertsonentzako eguneko zentroa | 207,45 euro hilean. |

| | |
|---|---|
| 15.1. tarifa. Adimen urritasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa | 15. tarifaren ehuneko 100 |
| 15.2. tarifa. Garapen arazoak dituzten pertsonentzako eguneko zentroa | 15. tarifaren ehuneko 100 |
| 15.3. tarifa. Ezgaitasun intelektuala duten pertsonentzako eguneko zentroa, lanaldi erdian (janaririk gabe) | 15. tarifaren ehuneko 35 |
| 16. tarifa. Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako eguneko zentroa | 199,47 euro hilean. |
| 16.1. tarifa. Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako eguneko zentroa lanaldi osoa | 16. tarifaren ehuneko 100 |
| 16.2. tarifa. Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako eguneko zentroa, lanaldi erdian (janaririk gabe) | 16. tarifaren ehuneko 35 |
| 17. tarifa. Autonomia pertsonaleko zentroa, muga fisiko eta organiko larriak dituzten pertsonentzat | 16. tarifaren ehuneko 57,23 |
| 17.1 tarifa. Arreta pertsonalizatua: | |
| 17.1.1 tarifa. Arreta pertsonala astean 29 ordutik 35 ordura | 16. tarifaren ehuneko 57,23 |
| 17.1.2. tarifa. Arreta pertsonala astean 22 ordutik 28 ordura | 16. tarifaren ehuneko 45,78 |
| 17.1.3 tarifa. Arreta pertsonala astean 15 ordutik 21 ordura | 16. tarifaren ehuneko 34,34 |
| 17.1.4 tarifa. Arreta pertsonala astean 8 ordutik 14 ordura | 16. tarifaren ehuneko 22,89 |
| 17.1.5 tarifa. Arreta pertsonala astean 7 ordura arte | 16. tarifaren ehuneko 11,45 |
| 17.2. tarifa. Zerbitzu osagarria: otordu zerbitzua | 88,72 euro hileko. |
| 17.2.1 tarifa. Janari zerbitzua: 5 egun astean | 17.2. tarifaren ehuneko 100 |
| 17.2.2 tarifa. Janari zerbitzua: 4 egun astean | 17.2. tarifaren ehuneko 80 |

| | |
|---|---|
| 17.2.3 tarifa. Janari zerbitzua: 3 egun astean | 17.2. tarifaren ehuneko 60 |
| 17.2.4 tarifa. Janari zerbitzua: 2 egun astean | 17.2. tarifaren ehuneko 40 |
| 17.2.5 tarifa. Janari zerbitzua: Janari zerbitzua: astean egun bat. | 17.2. tarifaren ehuneko 20 |
| Erabiltzaileak zerbitzua otordu zerbitzuarekin edo otordu zerbitzurik gabe jasotzea hauta dezake; batera zein bestera, gutxienez hiru hilabetean eutsi behar zaio hautapenari. | |
| 18. tarifa. Atseden zerbitzua egoitza zentroetan | 145,22 euro hilean. |
| 19. tarifa. Janari-zerbitzu osagarria zerbitzuan, lanerako zentroan edo eguneko zentroan. | 88,72 euro hilean. |
| Erabiltzaileak zerbitzua edo okupazio zentroa otordu zerbitzuarekin edo otordu zerbitzurik gabe jasotzea hauta dezake; batera zein bestera, gutxienez hiru hilabetean eutsi behar zaio hautapenari. | |
| 20 tarifa. Atseden zerbitzua: | |
| 20.1. tarifa. Atseden zerbitzua egoitzan | 40,71 euro hileko |
| 20.2 tarifa. Laguntza duen etxebizitzako atseden zerbitzua: asteko laguntza osoa, gauez gainbegiratuta | 36,64 euro eguneko |
| 20.3 tarifa. Etxean atseden hartzeko zerbitzua, laguntzarekin: asteko laguntza osoa, gauez gainbegiratu gabe. | 28,50 euro eguneko |
| 20.4 tarifa. Etxean atseden hartzeko zerbitzua, laguntzekin. Asteko laguntza astelehenetik ostiralera, gauez gainbegiratuta. | 26,46 euro eguneko |
| 20.5 tarifa. Etxean atseden hartzeko zerbitzua, laguntzekin. Asteko laguntza astelehenetik ostiralera, gauez gainbegiratu gabe. | 18,31 euro eguneko |
| 20.6 tarifa. Aldizkako laguntza duen etxebizitzako atseden zerbitzua | 14,25 euro eguneko |
| 20.7 Tarifa.Atseden zerbitzua eguneko zentroan. | 10,04 euro eguneko |
| 20.8 Tarifa.Atseden zerbitzua eguneko zentroan. | 7,02 euro eguneko |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| | |
|---|---|
| 20.9. tarifa. Beste atseden zerbitzu batzuk | 27,18 euro gaueko |
| 21. tarifa. Desgaitasuna duten haur eta gazteentzako aisialdi programa | 132,65 euro asteko. |

e) ADIMEN GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK

| | | |
|---|---|---|
| 22. tarifa. Bizimodu independenteari laguntzeko zerbitzua | | 24,48 euro hilean. |
| 23. tarifa. Egoitza-zentroak | | 1.238,38 euro hilean. |
| 23.1. tarifa. Egoitza | 23. tarifaren ehuneko 100 | 1.238,38 euro hilean. |
| 23.2. tarifa. Laguntzadun etxebizitza: gizarte hezkuntzako ostatua eta etengabeko arreta | 23. tarifaren ehuneko 70 | |
| 23.3. tarifa. Laguntzadun etxebizitza: Gizarte hezkuntzako ostatua, etengabeko arretarik gabe | 23. tarifaren ehuneko 30 | |
| 24. tarifa. Eguneko zentroa | | 207,45 euro hilean. |
| 24.1 tarifa. Eguneko zentroa, lanaldi osokoa | 24. tarifaren ehuneko 100 | |
| 24.2. tarifa. Eguneko zentroa: egun erdia (otordurik ez) | 24. tarifaren ehuneko 35 | |
| 25 tarifa. Atseden zerbitzua: | | |
| 25.1. tarifa. Atseden zerbitzua egoitzan | | 40,71 euro eguneko |
| 25.2 tarifa. Etxebizitza batean atseden hartzeko zerbitzua, gizarte eta hezkuntza arloko laguntza eta laguntza iraunkorrarekin | | 28,50 euro eguneko |
| 25.3 tarifa. Etxebizitza batean atseden hartzeko zerbitzua, gizarte eta hezkuntza izaerako ostatu laguntzarekin, arreta iraunkorrik gabe. | | 12,21 euro eguneko |
| 25.4.tarifa. Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroko zerbitzuak. | | 10,04 euro eguneko |

| | |
|---|---|
| 25.5. tarifa. Beste atseden zerbitzu batzuk | 27,19 euro gaueko |
| 26. tarifa. Eguneko zentroko janari zerbitzu osagarria: | 88,72 euro hilean. |
| Erabiltzaileak eguneko zentroaren zerbitzua otordu zerbitzuarekin edo otordu zerbitzurik gabe jasotzea hauta dezake; batera zein bestera, gutxienez hiru hilabetean eutsi behar zaio hautapenari. | |
| 27. tarifa. Adimen gaixotasuna duten pertsonentzako edota haien senitartekoentzako zerbitzua, gizarte hezkuntzaren aldetik eta alde psikosozialetik esku hartzeko | 24,48 euro hilean. |

f) HAURRENTZAKO, GAZTEENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO ZERBITZUAK

| | |
|---|---|
| 28. tarifa. Adingabeentzako egoitza zentroak (borondatezko zaintza denean bakarrik ordaindu beharko dira) | 371,51 euro hilean. |
| 28.1. tarifa. Egoitza zentroa | 28. tarifaren ehuneko 100 |
| 28.2. tarifa. Harrera etxebizitzak | 28. tarifaren ehuneko 100 |
| 28.3. tarifa. Emantzipaziorako prestatzeko zentroak | 28. tarifaren ehuneko 80 |
| 28.4. tarifa. Emantzipaziorako etxebizitzak | 28. tarifaren ehuneko 50 |
| 29. tarifa. Haurrentzako eguneko zentroa (borondatezko zaintza kasuetan bakarrik prezio publikoa ordaindu beharko da) | 24,48 euro hilean |

g) ZERBITZU OSAGARRIAK ZERBITZUAK ERA IRAUNKORREAN ERABILTZEN EZ DITUZTEN PERTSONENTZAKO

| | |
|---|---|
| 30. tarifa. Zerbitzu osagarriak era iraunkorrean erabiltzen ez dituzten pertsonentzako zerbitzu osagarriak | |
| 30.1 tarifa. Janari zerbitzua adinekoentzako eta ezgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan eta desgaitasuna duten pertsonentzako zentro okupazionalean. | 5,98 euro unitatea |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| | |
|---|---|
| 30.2 tarifa. Otordu zerbitzua, adinekoentzako landa eremuko ostatu zerbitzuan. | 5,98 euro unitatea |
| 30.3 tarifa. Bainugela geriatrikoa adinekoentzako eta ezgaitasuna dutenentzako egoitzetan. | 5,09 euro ekintza |
| 30.4 tarifa. Bainu geriatrikoaren zerbitzua, landa eremuan ostatu hartuz. | 5,09 euro ekintza |
| 30.5 tarifa. Zahar eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan arropa garbitzeko zerbitzua. | 8,20 euro ekintza |
| 30.6 tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua, adinekoentzako landa eremuan ostatu emateko. | 8,20 euro ekintza |
| 31. tarifa. Zerbitzu osagarriak, eskaintzen diren zerbitzu nagusien erabiltzaile iraunkorren senideentzat. | |
| 31.1 tarifa. Adineko pertsonentzako eta ezgaitasuna duten pertsonentzako janari-zerbitzua egoitzetan. | 5,98 euro unitatea |
| 31.2 tarifa. Otordu zerbitzua, adinekoentzako landa eremuko ostatu zerbitzuan. | 5,98 euro unitatea |

## II. ERANSKINA

### AHALBIDE EKONOMIKOA NAHIKOA DEN ZEHAZTEA

I. eranskinean ezarritako prezio publikoak indarrean dauden bitartean, ulertuko da ahalmen ekonomiko nahikoa dagoela eranskin honetan aurreikusitako kasuetan eta moduan.

1. Hobariak zehazteko 8.1 artikuluan ezarritakoaren ondoreetarako, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalbide ekonomikoa dagoela joko da ahalbide ekonomikoa, III. tituluaren I. kapituluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta, a) eta b) letretan adierazitako mugak bezain handia edo horiek baino handiagoa denean:

    a) Per capita edo banakako hileko ahalbide ekonomikoa kontuan hartzen denean aplikagarriak diren mugak:

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zerbitzu orokorrak | Arreta soziosanitarioa jasotzeko egoitza unitatea | 1.391,26 euro/ hilabetea | |
| Adinekoentzako zerbitzuak | Atseden zerbitzua egoitzan. | 1.391,26 euro/ hilabetea | |
| | Atseden zerbitzuak bizitoki zerbitzuetan | 877,18 euro/ hilabetea | |
| a) Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuak | | Art. 11.1.a) | Art. 11.1.b) |
| | Egoitza | 1.467,70 euro/ hilabetea | 1.697,02 euro/ hilabetea |
| | Laguntzadun etxebizitza: Aste osoko arreta, gaueko zaintzarekin | 1.343,86 euro/ hilabetea | 1.573,18 euro/ hilabetea |
| | Aldizkako laguntza duen etxebizitza | 662,75 euro/ hilabetea | 892,07 euro/ hilabetea |
| | Atseden zerbitzua desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan | 1.467,70 euro/ hilabetea | 1.697,02 euro/ hilabetea |
| | Laguntza duen etxebizitzako atseden zerbitzua: Aste osoko arreta, gaueko zaintzarekin | 1.343,86 euro/ hilabetea | 1.573,18 euro/ hilabetea |
| | Aldizkako laguntza duen etxebizitzako atseden zerbitzua | 662,75 euro/ hilabetea | 892,07 euro/ hilabetea |
| Buru-gaixotasuna duten pertsonentzako zerbitzuak | Egoitza | 1.467,70 euro/ hilabetea | 1.697,02 euro/ hilabetea |
| | Laguntzadun etxebizitza: gizarte hezkuntzako ostatua etengabeko arretarekin | 1.096,19 euro/ hilabetea | 1.325,51 euro/ hilabetea |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Laguntzadun etxebizitza: gizarte hezkuntzako ostatua etengabeko arretarik gabe | 600,83 euro/ hilabetea | 830,15 euro/ hilabetea |
| | Atseden zerbitzua egoitzetan buruko gaixotasuna duten pertsonentzat | 1.467,70 euro/ hilabetea | 1.697,02 euro/ hilabetea |
| | Atseden zerbitzua, laguntzadun etxebizitzan: gizarte hezkuntzako ostatua etengabeko arretarekin | 1.096,19 euro/ hilabetea | 1.325,51 euro/ hilabetea |
| | Atseden zerbitzua, laguntzadun etxebizitzan: gizarte hezkuntzako ostatua, etengabeko arretarik gabe | 600,83 euro/ hilabetea | 830,15 euro/ hilabetea |

b) Familiaren hileko ahalbide ekonomikoa kontuan hartzen denean aplikagarriak diren mugak:

| | | |
|---|---|---|
| Zerbitzu orokorrak | Etxez etxeko laguntza zerbitzua | 1.599,00 euro/ hilabetea |
| Adinekoentzako zerbitzuak | Zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan: | 1.599,00 euro/ hilabetea |
| | Zerbitzua edo eguneko zentroa ostatu zerbitzuan | 1.599,00 euro/ hilabetea |
| | Asteburuko zerbitzua eguneko zentroa | 1.599,00 euro/ hilabetea |
| | Eguneko arretarako landa zentroa | 1.599,00 euro/ hilabetea |
| a) Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuak | Adimen edo garapen desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzua edo eguneko zentroa | 1.599,00 euro/ hilabetea |
| | Muga fisiko eta organiko larriak dituzten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa eta/edo autonomia pertsonaleko zentroa. | 1.599,00 euro/ hilabetea |
| | Zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan | 1.599,00 euro/ hilabetea |
| Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako zerbitzuak | Zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan | 1.599,00 euro/ hilabetea |
| Haurrentzako eta familientzako zerbitzuak | | Zerga-oinarria |
| | Egoitza zentroa | 19.188,00 euro/urte |
| | Harrera etxebizitza | 19.188,00 euro/urte |
| | Emantzipaziorako prestatzeko zentroak | 15.350,40 euro/urte |

| | | |
|---|---|---|
| | Emantzipaziorako etxebizitza | 7.675,20 euro/urte |
| | Haurrentzako eguneko zentroak | 7.675,20 euro/urte |

Era berean, aurreko a) eta b) idatz-zatietan jasotako kasuetan, gaitasun ekonomiko nahikoa dagoela ulertuko da, baldin eta, III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatutako ahalmen ekonomikoa aurreko tauletan aurreikusitako mugak baino txikiagoa izan arren, ondare konputagarria badu:

1. 90.000 euro edo gehiago, 35 urtetik beherakoentzat.
2. 70.000 euro edo gehiago, 35 eta 65 urte bitarteko pertsonentzat.
3. 50.000 euro edo gehiago, 65 urtetik gorakoentzat.

2. 15.1 artikuluan adinekoentzako egoitza zerbitzuen prezioen ordainketaren gerorapen partzialaz ezarritakoaren ondorioetarako, erabiltzailearen ahalbide ekonomikoa, III. tituluko I. kapituluan ezarri den bezala zenbatua, prezio publiko osoa ordaintzeko nahikotzat joko da jarraian finkatuko diren mugetara iristen bada:

| | | |
|---|---|---|
| Adinekoentzako zerbitzuak | Ostatu zerbitzua | 877,18 euro / hilabetea |
| | Egoitza zentroa: 5.1 tarifa arruntaren kasuan. | 1.391,26 euro/ hilabetea |
| | Egoitza zentroa: 5.2 tarifa arruntaren kasuan. | 1.705,57 euro/ hilabetea |

3. Halaber, gaitasun ekonomiko nahikoa dagoela joko da, baldin eta pertsona horrek erraz egiteko moduko ondarea badu:

a) 3.000 euro, adinekoentzako ostatu-zerbitzuen eta egoitza-zentroen kasuan.

b) 15.000 euro, adinekoentzako zerbitzuen eta eguneko-zentroen kasuan.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

III. ERANSKINA

I. ERANSKINEAN EZARRITAKO PREZIO PUBLIKOAK INDARREAN DAUDEN ALDIAN APLIKATUKO DIREN HOBARIAK

I. eranskinean ezarritako prezio publikoen indarraldian, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalbide ekonomikoa ez duten pertsonei honako hobari hauek aplikatuko zaizkie, foru dekretu honetako 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita:

**1.** ZERBITZU OROKORREN ORDAINKETAN APLIKATUKO DIREN HOBARIAK

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua

  Zerbitzu honek ordaindu beharreko banakako prezioa zehazteko, familiaren hileko ahalmen ekonomikoaren arabera, ondoko baremo hau aplikatuz ateratzen diren zenbatekoak aplikatuko dira orduko:

| Familiaren ahalbide ekonomikoa (euroak) | Gehienez ere (euroak) | Zenbatekoa | Gainerakoa, gehienez ere | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|
| Gehienez 500,00 | 0,00 | 0 | 500,00 | 0,22 |
| 600,00 | 500,00 | 1,10 | 100,00 | 0,33 |
| 700,00 | 600,00 | 1,43 | 100,00 | 0,43 |
| 800,00 | 700,00 | 1,86 | 100,00 | 0,54 |
| 900,00 | 800,00 | 2,40 | 100,00 | 0,65 |
| 1.000,00 | 900,00 | 3,05 | 100,00 | 0,82 |
| 1.100,00 | 1.000,00 | 3,87 | 100,00 | 0,98 |
| 1.200,00 | 1.100,00 | 4,85 | 100,00 | 0,60 |
| 1.300,00 | 1.200,00 | 5,45 | 100,00 | 0,43 |
| 1.400,00 | 1.300,00 | 5,88 | 100,00 | 0,33 |
| 1.500,00 | 1.400,00 | 6,21 | 100,00 | 0,22 |
| 1.599,00 | 1.500,00 | 6,43 | 99,00 | 0,22 |
| 1.500,00 euro baino gehiago | | Gehieneko tarifa | | 6,66 euro ordu bakoitzeko |

  Ordaindu beharreko zenbatekoa zehazteko, hilabeteko ordu onartuen kopurua zehaztu beharko da; horretarako, asteko orduen batura 4,3 aldiz biderkatuko da.

- Egoitza-unitate soziosanitarioa

  Egoitza-unitate soziosanitarioaren zerbitzuak ordaindu beharreko banakako prezioa, prezio publiko osoa ordaintzeko adinako gaitasun ekonomikorik ez badu, hileko banakako gaitasun ekonomikoaren ehuneko 80koa izango da. Nolanahi ere, 11.3 artikuluan ezarritakoaren arabera dagokion erabilera libreko zenbatekoa errespetatu beharko da, eta gainerakoa ondare konputagarriaren kontura ordainduko da.

  Erabilera libreko zenbateko osoa bermatzeko adinako ondare konputagarririk ez badago, banakako prezioa jaitsi egingo da 11. artikuluaren arabera dagokion xedapen librea bermatu arte.

Erabiltzailearen ezkontideak edo harekin ezkontzaren antzeko loturaren bidez lotuta dagoen pertsonak, lotura hori foru dekretu honen lehen xedapen gehigarrian definitzen den moduan, familiaren etxean jarraitzen badu, 11.3 artikuluan adierazitako erabilera libreko zenbatekoa ehuneko 50 handituko da.

**2.** ADINEKOENTZAKO ZERBITZUEN ORDAINKETAN APLIKATUKO DIREN HOBARIAK

- Zerbitzuak eguneko arretarako landa zentroetan

Eguneko arretako landa zentroetan arreta pertsonaleko zerbitzua jasotzeagatik ordaindu beharreko banakako prezioa kalkulatzeko, honako baremo taula honetako hileko kopuruak aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalbide ekonomikoa oinarritzat hartuta:

| Familiaren ahalbide ekonomikoa (euroak) | Gehienez ere (euroak) | Zenbateko a | Gainerakoa, gehienez ere | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|
| Gehienez 500,00 | 0 | 0 | 500,00 | 3,27 |
| 600,00 | 500,00 | 16,35 | 100,00 | 5,69 |
| 700,00 | 600,00 | 22,04 | 100,00 | 7,96 |
| 800,00 | 700,00 | 30,00 | 100,00 | 11,37 |
| 900,00 | 800,00 | 41,37 | 100,00 | 12,46 |
| 1.000,00 | 900,00 | 53,83 | 100,00 | 12,50 |
| 1.100,00 | 1.000,00 | 66,33 | 100,00 | 12,50 |
| 1.200,00 | 1.100,00 | 78,83 | 100,00 | 12,56 |
| 1.300,00 | 1.200,00 | 91,39 | 100,00 | 12,56 |
| 1.400,00 | 1.300,00 | 103,95 | 100,00 | 12,56 |
| 1.500,00 | 1.400,00 | 116,51 | 100,00 | 6,87 |
| 1.599,00 | 1.500,00 | 123,38 | 99,00 | 6,87 |
| 1.599,00 euro baino gehiago | | Gehieneko tarifa | 130,18 euro | |

- Zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan eta asteburuetako eguneko zentroa.

Zerbitzu horiek jasotzeagatik ordaindu beharreko banako prezioaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako baremo taulako hileko kopuruak aplikatu behar dira, erabiltzailearen familiaren hileko errenta oinarritzat hartuta:

| Familiaren ahalbide ekonomikoa (euroak) | Gehienez ere (euroak) | Zenbatekoa | Gainerakoa, gehienez ere | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|
| 0,00tik | 0,00 | 0,00 | 500,00 | 24,51 |
| 600,00 | 500,00 | 122,59 | 100,00 | 35,18 |
| 700,00 | 600,00 | 157,77 | 100,00 | 37,32 |
| 800,00 | 700,00 | 195,07 | 100,00 | 40,51 |
| 900,00 | 800,00 | 235,58 | 100,00 | 44,77 |
| 1.000,00 | 900,00 | 280,35 | 100,00 | 47,98 |
| 1.100,00 | 1.000,00 | 328,33 | 100,00 | 51,17 |
| 1.200,00 | 1.100,00 | 379,50 | 100,00 | 54,37 |
| 1.300,00 | 1.200,00 | 433,86 | 100,00 | 63,96 |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1.400,00 | 1.300,00 | 497,82 | 100,00 | 25,58 |
| 1.500,00 | 1.400,00 | 523,40 | 137,50 | 11,99 |
| 1.599,00 | 1.500,00 | 535,39 | 99,00 | 11,99 |
| 1.537,50 euro baino gehiago | Gehieneko tarifa | | 547,27 euro | |

Zerbitzu-modalitateei dagozkien berariazko zenbatekoak zehazteko, aurreko baremo-taulan ezarritako zenbatekoei foru dekretu honen I. eranskineko 6.1 tarifatik 6.8 tarifara arteko ehunekoak aplikatuko zaizkie, modalitate bakoitzari dagokionaren arabera.

Bi ezkontideak edo ezkontzaren antzeko loturaren bidez elkartutako pertsonak, foru dekretu honetako lehen xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera, egoitza-zentroetan eta ostatu-zerbitzuetan edo asteburuetako eguneko zentroan eguneko zentroaren edo eguneko arreta-zerbitzuaren erabiltzaileak badira, aurreko taulan adierazitako ehunekoak aplikatuko zaizkien diru-sarreren oinarria familia-unitatearen hileko ahalmen ekonomikoaren ehuneko 65ekoa izango da. Ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsona –foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– egoitza batean badago, ehuneko hori ehuneko 50 izango da.

- Eguneko laguntza landa eremuko ostatuan

  Zerbitzu horiek jasotzeagatik ordaindu beharreko banako prezioaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako baremo taulako hileko kopuruak aplikatu behar dira, erabiltzailearen familiaren hileko errenta oinarritzat hartuta:

| Familiaren ahalbide ekonomikoa (euroak) | Gehienez ere (euroak) | Zenbatekoa | Gainerakoa, gehienez ere | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|
| 0,00tik | 0,00 | 0,00 | 500,00 | 10,00 |
| 600,00 | 500,00 | 50,00 | 100,00 | 14,37 |
| 700,00 | 600,00 | 64,37 | 100,00 | 15,22 |
| 800,00 | 700,00 | 79,59 | 100,00 | 16,53 |
| 900,00 | 800,00 | 96,12 | 100,00 | 18,27 |
| 1.000,00 | 900,00 | 114,39 | 100,00 | 19,57 |
| 1.100,00 | 1.000,00 | 133,96 | 100,00 | 20,87 |
| 1.200,00 | 1.100,00 | 154,84 | 100,00 | 22,18 |
| 1.300,00 | 1.200,00 | 177,02 | 100,00 | 26,09 |
| 1.400,00 | 1.300,00 | 203,11 | 100,00 | 10,44 |
| 1.500,00 | 1.400,00 | 213,55 | 100,00 | 2,69 |
| 1.599,00 | 1.500,00 | 216,24 | 99,00 | 2,69 |
| 1.599,00 euro baino gehiago | Gehieneko tarifa | | 218,91 euro | |

Bi ezkontideak edo ezkontzaren antzeko loturaren bidez elkartutako pertsonak, foru dekretu honetako lehen xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera, landa-eremuko ostatuko eguneko arreta-zerbitzuaren erabiltzaileak badira, aurreko taulan adierazitako ehunekoak aplikatuko zaizkion diru-sarreren oinarria familia-unitatearen hileko ahalmen ekonomikoaren ehuneko 65ekoa izango da. Ezkontidea edo ezkontzaren antzeko loturaren bidez elkartutako pertsona, foru dekretu honen lehen xedapen gehigarrian definitzen den moduan, bizilekuan badago, azken ehuneko hori ehuneko 50ekoa izango da.

- Egoitza-zentroetan eta ostatu-zerbitzuetan atseden hartzeko zerbitzuak

  Atseden-zerbitzu horietako edozeinek ordaindu beharreko banakako prezioa, erabiltzaileak prezio publiko osoa ordaintzeko adinako gaitasun ekonomikorik ez badu, bere hileko ahalmen ekonomiko indibidualaren ehuneko 80koa izango da. Nolanahi ere, 11.2 artikuluan ezarritakoaren arabera dagokion erabilera libreko zenbatekoa errespetatu beharko da, eta gainerakoa ondare konputagarriaren kargura bermatuko da.

  Erabilera libreko zenbateko osoa bermatzeko adinako ondare konputagarririk ez badago, banakako prezioa jaitsi egingo da 11. artikuluaren arabera dagokion xedapen librea bermatu arte.

  Erabiltzailearen ezkontideak edo harekin ezkontzaren antzeko loturaren bidez lotuta dagoen pertsonak, foru dekretu honen lehen xedapen gehigarrian aipatzen den lotura hori familiaren etxean jarraitzen badu, 11.2 artikuluan aipatzen den erabilera libreko zenbatekoa ehuneko 50 handituko da.

**3.** DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK

- Egoitza zentroak

  Erabiltzaileak prezio publiko osoa ordaintzeko adinako gaitasun ekonomikorik ez badu, zerbitzu honek ordaindu beharreko banakako prezioa hileko banakako ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80koa izango da. Nolanahi ere, 11.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera dagokion erabilera libreko zenbatekoa errespetatu beharko da, eta gainerakoa ondare konputagarriaren kargura bermatuko da.

  Erabilera libreko zenbateko osoa bermatzeko adinako ondare konputagarririk ez badago, banakako prezioa jaitsi egingo da 11. artikuluaren arabera dagokion xedapen librea bermatu arte.

  Erabiltzailearen ezkontideak edo harekin ezkontzaren antzeko loturaren bidez lotuta dagoen pertsonak, foru dekretu honen lehen xedapen gehigarrian aipatzen den lotura hori familiaren etxean jarraitzen badu, 11.1 artikuluan aipatzen den erabilera libreko zenbatekoa ehuneko 50 handituko da.

- Atseden zerbitzua egoitza zentroetan

  Atseden-zerbitzu horiek ordaindu beharreko banakako prezioa, erabiltzaileak prezio publiko osoa ordaintzeko adinako gaitasun ekonomikorik ez badu, hileko banakako ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80koa izango da. Nolanahi ere, 11.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera dagokion erabilera libreko zenbatekoa errespetatu beharko da, eta gainerakoa ondare konputagarriaren kargura bermatuko da.

Erabilera libreko zenbateko osoa bermatzeko adinako ondare konputagarririk ez badago, banakako prezioa jaitsi egingo da 11. artikuluaren arabera dagokion xedapen librea bermatu arte.

Erabiltzailearen ezkontideak edo harekin ezkontzaren antzeko loturaren bidez lotuta dagoen pertsonak, foru dekretu honen lehen xedapen gehigarrian aipatzen den lotura hori familiaren etxean jarraitzen badu, 11.1 artikuluan aipatzen den erabilera libreko zenbatekoa ehuneko 50 handituko da.

- **Eguneko zentroa**

Zerbitzuaren aldaera hauek sartzen dira: adimeneko edo garapeneko desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa; desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako egoitzetako eguneko zentroa.

Desgaitasun intelektuala edo garapena duten pertsonentzako eguneko zentroak ordaindu beharreko banakako prezioa zehazteko, familiaren hileko ahalmen ekonomikoaren arabera, ondoko baremo-taula aplikatzearen ondoriozko hileko zenbatekoak:

| Familiaren ahalbide ekonomikoa (euroak) | Gehienez ere (euroak) | Zenbatekoa | Gainerakoa, gehienez ere | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|
| 0,00tik | 0,00 | 0,00 | 500,00 | 12,79 |
| 600,00 | 500,00 | 63,96 | 100,00 | 12,79 |
| 700,00 | 600,00 | 76,75 | 100,00 | 12,79 |
| 800,00 | 700,00 | 89,54 | 100,00 | 13,86 |
| 900,00 | 800,00 | 103,41 | 100,00 | 13,86 |
| 1.000,00 | 900,00 | 117,26 | 100,00 | 13,86 |
| 1.100,00 | 1.000,00 | 131,12 | 100,00 | 13,86 |
| 1.200,00 | 1.100,00 | 144,98 | 100,00 | 14,92 |
| 1.300,00 | 1.200,00 | 159,90 | 100,00 | 14,92 |
| 1.400,00 | 1.300,00 | 174,83 | 100,00 | 14,92 |
| 1.500,00 | 1.400,00 | 189,75 | 137,50 | 8,89 |
| 1.599,00 | 1.500,00 | 198,64 | 99,00 | 8,89 |
| 1.599,00 euro baino gehiago | Gehieneko tarifa | | 207,45 euro | |

Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako eguneko zentroari lanaldi erdian (janaririk gabe) dagokion zenbatekoa zehazteko, aurreko baremo-taulan ezarritako zenbatekoari I. eranskineko 15.3 tarifan aurreikusitako portzentajea aplikatuko zaio.

Eguneko zentro bakoitzeko eta/edo autonomia pertsonaleko, muga fisiko eta organiko larriak dituzten pertsonentzat ordaindu beharreko banakako prezioa zehazteko, familiaren hileko ahalmen ekonomikoaren arabera, ondoko baremo-taula aplikatzearen ondoriozko hileko zenbatekoak aplikatuko dira:



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| Familiaren ahalbide ekonomikoa | Gehienez ere (euroak) | Zenbatekoa | Gainerakoa, gehienez ere | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|
| 0,00tik | 0,00 | 0,00 | 500,00 | 7,28 |
| 600,00 | 500,00 | 36,40 | 100,00 | 7,28 |
| 700,00 | 600,00 | 43,68 | 100,00 | 7,28 |
| 800,00 | 700,00 | 50,96 | 100,00 | 7,80 |
| 900,00 | 800,00 | 58,76 | 100,00 | 7,80 |
| 1.000,00 | 900,00 | 66,56 | 100,00 | 7,80 |
| 1.100,00 | 1.000,00 | 74,36 | 100,00 | 7,80 |
| 1.200,00 | 1.100,00 | 82,16 | 100,00 | 8,32 |
| 1.300,00 | 1.200,00 | 90,48 | 100,00 | 8,32 |
| 1.400,00 | 1.300,00 | 98,80 | 100,00 | 8,32 |
| 1.500,00 | 1.400,00 | 107,12 | 100,00 | 5,83 |
| 1.599,00 | 1.500,00 | 112,95 | 99,00 | 5,83 |
| 1.599,00 euro baino gehiago | Gehieneko tarifa | | 118,72 euro | |

Hobari-taula aplikatzearen ondoriozko zenbatekoei zerbitzuaren erabileraren intentsitate-tartearen ehunekoak aplikatuko zaizkie.

4.ADIMEN ERITASUN KRONIKOA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK

- Egoitza zentroak

  Erabiltzaileak prezio publiko osoa ordaintzeko adinako gaitasun ekonomikorik ez badu, zerbitzu horiek ordaindu beharreko banakako prezioa bere ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80koa izango da. Nolanahi ere, 11.1 artikuluan ezarritakoaren arabera dagokion erabilera libreko zenbatekoa errespetatu beharko da, eta gainerakoa ondare konputagarriaren kontura ordainduko da.

  Erabilera libreko zenbateko osoa bermatzeko adinako ondare konputagarririk ez badago, banakako prezioa jaitsi egingo da 11. artikuluaren arabera dagokion xedapen librea bermatu arte.

  Erabiltzailearen ezkontideak edo harekin ezkontzaren antzeko loturaren bidez lotuta dagoen pertsonak, foru dekretu honen lehen xedapen gehigarrian aipatzen den lotura hori familiaren etxean jarraitzen badu, 11.1 artikuluan aipatzen den erabilera libreko zenbatekoa ehuneko 50 handituko da.

- Atseden zerbitzua egoitza zentroetan

  Atseden-zerbitzu horiek ordaindu beharreko banakako prezioa, erabiltzaileak prezio publiko osoa ordaintzeko adinako gaitasun ekonomikorik ez badu, hileko banakako ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80koa izango da. Nolanahi ere, 11.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera dagokion erabilera libreko zenbatekoa errespetatu beharko da, eta gainerakoa ondare konputagarriaren kargura bermatuko da.

Erabilera libreko zenbateko osoa bermatzeko adinako ondare konputagarririk ez badago, banakako prezioa jaitsi egingo da 11. artikuluaren arabera dagokion xedapen librea bermatu arte.

Erabiltzailearen ezkontideak edo harekin ezkontzaren antzeko loturaren bidez lotuta dagoen pertsonak, foru dekretu honen lehen xedapen gehigarrian aipatzen den lotura hori familiaren etxean jarraitzen badu, 11.1 artikuluan aipatzen den erabilera libreko zenbatekoa ehuneko 50 handituko da.

- **Eguneko zentroa egoitza zentroetan**

Zerbitzu horren banako prezioaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako baremo taula honetako hileko kopuruak aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalbide ekonomikoa oinarritzat hartuta:

| Familiaren ahalbide ekonomikoa (euroak) | Gehienez ere (euroak) | Zenbatekoa | Gainerakoa, gehienez ere | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|
| 0,00tik | 0,00 | 0,00 | 500,00 | 12,79 |
| 600,00 | 500,00 | 63,96 | 100,00 | 12,79 |
| 700,00 | 600,00 | 76,75 | 100,00 | 12,79 |
| 800,00 | 700,00 | 89,54 | 100,00 | 13,86 |
| 900,00 | 800,00 | 103,41 | 100,00 | 13,86 |
| 1.000,00 | 900,00 | 117,26 | 100,00 | 13,86 |
| 1.100,00 | 1.000,00 | 131,12 | 100,00 | 13,86 |
| 1.200,00 | 1.100,00 | 144,98 | 100,00 | 14,92 |
| 1.300,00 | 1.200,00 | 159,90 | 100,00 | 14,92 |
| 1.400,00 | 1.300,00 | 174,83 | 100,00 | 14,92 |
| 1.500,00 | 1.400,00 | 189,75 | 137,50 | 8,89 |
| 1.599,00 | 1.500,00 | 198,64 | 99,00 | 8,89 |
| 1.599,00 euro baino gehiago | | Gehieneko tarifa | | 207,45 euro |

Zerbitzu-modalitateei dagozkien berariazko zenbatekoak zehazteko, aurreko baremo-taulan ezarritako zenbatekoei foru dekretu honen I. eranskineko 24.1 tarifatik 24.2 tarifara arteko ehunekoak aplikatuko zaizkie, modalitate bakoitzari dagokionaren arabera.



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.12.30 06:32:37 Z